

Sirian Estatu Islamikoa garaitu badute, zergatik ez da gerra amaitzen?



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Estatu Islamikoa Alepotik 2016an kanporatu eta, batik bat, joan den urrian Al-Raqa eta inguruetan sakabanatuz geroztik, askok espero zuen Siriako gerra amaierara hurbiltzen hastea. Oso bestela gertatu da. Israel eta Iran zuzeneko talkara iritsi, Afrin eskualdeko gudua gogortu, lehenbizikoz AEBetako tropek eta Errusiako paramilitarrek elkarri eraso, Damasko hiriburuko Gutha auzoa airetik krudelki suntsitu... Siriako gatazkaren hariak inoiz baino nahasiagoak ageri dira.

2018ko udaberri atarira iritsiagatik, ez da itxaropen kimu berririk erne Sirian. Tokitan geratu dira 2011ko udaberri arabiarren itxaropenak... *Basta!* magazine frantsesean Thomas Clerget kazetariak sintetizatu duenez, "sufrikariozko zazpi urteak arren, Siriako 'gerra amaiezinari' ez zaio berehalako irtenbiderik ikusten. (...) Gaur Siriak bizi duen bortizkerien gogortzeak erakusten du prozesu politikoa erabat estankatuta dagoela, gatazkan jokalaria diren guztien militarki abantaila ateratzeko nahiak eragiten baititu bortizkeriak".

Ekialde Hurbilean zer bait agindu nahi duten potentzia guztiek esku hartzen dutenez Sirian, nor bere posizio militarra sendotzeko lehia odoltsuan ari dira noizbait iritsi beharko omen duen irtenbiderako prest egoteko. Partida gogorretan egin ohi denez, edozein jokaldi ausartetan arriskatzeko gauza dela erakutsi nahi du bakoitzak.

Hala egin du Israelek -Clergeten analisisa laburbilduko dugu hemen- otsailaren 10ean Sirian egindako eraso eta zuzenean Irango armadaren guneak atakatu dituenean. Israelek bat egiten du AEBek eskualde horretan -Golkoko monarkiekin elkarlanean- etsai nagusitzat Iran jotzean. Nola edo hala ahuldu beharra dago Teherandik hasita Iraken barrena Libanon Mediterraneoraino zabaltzen omen den arku xiitari.

Iranek hil ala biziko garrantzia eduki du Baxar Al-Assaden gobernuaren biziraupenean, nahiz eta Errusiak baino

era diskretoagoan lagundu dion. Sostengu ekonomikoaz gain Iraultzaren Zaindariak bidali dizkio eta lekuko milizia xiitei babesa eman. "Errusia egin bada Siriako zeruetako [hegazkinengatik] nagusi 2015az geroztik, lurraldearen batasunari Siriako armadarekin batera eusten diotenak Iranen aldeko miliziak dira", dio Clergetek.

Otsailaren 7an beste argi gorri bat piztu zen gatazkaren eskaladan. AEBetako hegazkinek eraso eta hil zituzten 200-300 mertzenario errusiar, Deir-Ez-zor eskualdean Siriako armadarentzako lanean ari zirenak. Moskuk Sirian zeuzkan tropak atera dituen arren, 1.500-2.000 mertzenario errusiar ari dira borrokan Wagner konpainiak eramanik, ofizialki Vladimir Putinen gobernuaren ezjakinean.

Afrin eskualdekua da beste gudu nagusi bat, gatazka zein korapilatsua den erakusten duena, hortik Turkiak YPGko kurduak ateratzeko antolatu duen *Olibondo adarra* operazioarekin. Turkiari bidea eragotziz Errusiak miliziano kurduei babesa eman izan die Afrinen. Gauza bitxia, jakina denean kurduak gainerako eremuetan AEBekin ari direla elkarlanean, yankiek ere *ahazturik* YPGkoak mugimendu ezkertiarra direla. Baina gerra guztietako "*gure etsaien etsaiak geure lagun izan daitezke*" leloa, inon izatekotan Sirian ageri da.

Kontua da kurduak iritsi direla *de facto* Siriaren heren bat kontrolatzera. Estatu berri bat non eta Siria eta Turkia



artearen? Aldaketa handiegia Turkiatz gain beste gehiagorentzako.

Errusiak Afrindik erretiratzat kurduen ultimatuma eman die, hala azaldu du Piotr Apokov analistak: "Turkiaren mehatxuak denborarekin kurduak behartuko ditu beren lekua bilatzera Siriaren barruan. Bortxatuak izango dira horretara, bai Damasko eta Moskuk daukatelako ahalmena bermeak emateko turkiarrei, eta baita beren independentziak ez litzukeelako babestuko Turkiaren operazio antiterroristetatik".

Baina errusiarren plana ondo aterako balitz kurduak amore emanaz, Damaskon Baxar Al-Assad geratuko litzateke kurduen laguntzat turkiarren aurrean. Auskalo horrek kurduen eta AEBen arteko harremana nola utziko lukeen...

XXI. mendeko gerra Gouthan ikusi

Goutha Ekialdean jokutzen da beste gudu erabakigarria. Damaskoren auzoa den Goutha Ekialdea 2011n Baxar Al-Assaden kontrako mobilizazioetan nabarmendu zen. Orduan zeuzkan milioi eta erdi biztanleak urritzen joan dira, batik bat 2013ko maiatzean gobernuaren tropek Irango milizien eta Hezbolaren laguntzarekin erabat inguratu eta setiatu zutenetik.

Bere karriketan lehen orduko milizia iraultzaileetatik hasita klase askotako miliziak pasatzen ikusi dituzten Gouthako biztanleek, astez aste ikasi behar izan dute bizirauten hornidura oinarritzkoenak barik, janaria eta iturriko ura barne.



Abdulmonam Eassak AFP agentziaren bidez zabaldu zuen argazki hau urtarilaren 9an: neskato bat Siriako Gobernuaren hegazkinen jaurtitako bonbaz Goutha auzoan birrindutako eraikinen aurrien artetik ateratzen, hautsez josita, eskuetan daramala oinetakoetako bat. Egun hartako erasoan 40 lagunek galdu zuen bizia. Amnesty Internationalek gerra krimeneztat jo ditu Gouthan errusiarrek eta siriarrak herritarren kontra indiskriminatuki erabilitako "Edo alde egin edo bertan hil" taktika.

Gaur UNICEFen kalkuluetan 400.000 pertsona geratzen dira Goutha ekialdean, horien erdiak haur eta gaztetxoak.

Alepo, Al-Raqqa, Deir-Ezzor edo Afriren islatzen badira bere konplexutasun nahasian Siriako gerraren osagai geopolitikoak –AEB, Israel, Errusia, Iran, Turkia, Saudi Arabia...– Goutha Ekialdeko populazioaren martirioak erakusten du gatazka honek gerra zibiletik, edo nahi bada gobernu autoritario baten erreakzio basatitik, daukana.

2013tik setioaz gain hainbeste bonbaketa eta eraso jasandako Goutha joan den azarotik egunero ari dira bonbardatzen Siriaren eta Errusiaren hegazkinak. Zanpaketa are larri eta sistematikoagoa da abendutik, artilleriak ere lagunduta. Azokak, ospitaleak, okindegi bakanen edo elikagaien banaketaren aurrean zain dauden jendetzak, etxebizitza blo-

keak... Erasoaren lehenbiziko astean 500 pertsona hil zituzten, geroztik eten gabe ugaritu dira hildakoak. Otsailaren 24an Nazio Batuen Erakundearen adostutako hilabeterako su-etanak ez zuen biharamunera arte iraun, geroztik Errusiatik Vladimir Putinek iragarritako eguneroko 5 orduko barealdiak ez du arrakasta handiagoa izan.

Amnesty Internationalek salatu du Al-Assadek eta errusiarrek Gouthan dabilten estrategia dela "Edo alde egin, edo bertan hil" [*We leave or we die*]: herritarrei leher egin arazi haien artean babestutako oposizio armatua menderatzeko, gero negoziatzeko bizirik geratutako zibil eta gudarien ihesa. "*Siria, 'errenditu ala hil' estrategia*" agirian gordin deskribatzen da bai talde matxinoek baina nagusiki Damaskoko gobernuak nola erabiltzen duten estrategia hau.

Egia da munduko potentzia handien –funtsean AEB eta Errusiaren– gehi Israel, Turkia, Iran eta Golkoko estatuak bezalako potentzia txikiagoen arteko talka geopolitikoak dena zipriztintzen duela Siriako gerran, handik iristen diren informazioak kutsatzeraino. Baina aski da Gouthari aietik *dronez* Anadoluk ateratako bideo laburra ikustea –interneten dago, bi minutu dirau– jabetzeko zer den krimen hura.

Siriako populazioaren zazpi urteotako sufrikarioa ikaragarria da. 2011 urteaz geroztiko 500.000 heriotza kalkulatzen dira, horietatik %30 edo %40 zibilak, eta bi milioi zauritu gehiago ere bai. (...) 22 milioi biztanleetatik 5,4 milioi ihes egin behar izan dute, 6,1 milioi gehiago herrialde barruan daude etxetik urrundak. NBEaren arabera 13 milioi noztizen dute laguntza mediku larria. ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

